



ESTATUA

The Spirit of '45 dokumentalaren galdetegia

1. Zer ulertzeko ikusi da dokumetal hau?

Ongizate-estatuaren bilakaera historikoa eta honen esku-hartzea ekonomian hobeto ulertzeko ikusi da dokumental hau. Gainera eskubide sozialen berme ahula ere erakutsi digu. Hauek erraz sortu eta desagertu ahal direla azaltzen da bertan. 1978ko Konstituzioak (3. Kapituluak) adierazten den bezela.

2. Erreinuko 5 arazo naguzienekin amaitzeko txosten bat osatu zen? Bost arazo hauek aipatu (ez azaldu).

Bai, bost arazoak hauek ziren:

Txirotasuna, langabezia, gaixotasunak, ezjakintasuna eta miseria.

3. Nola du izena txostenak?

Hau William Henry Beveridgek idatzi zuen, ekonomilari eta politikari liberal inglesa zen. Txostena “Beveridgen informea” izenarekin ezagutzen da. Gure Estatuak ere jarraitu duena adibidez gure osasun serbitzuak garatzeko, adibidez Osakidetza bertan..

“Report to the Parliament on Social Insurance and Allied Services” hain zuzen ere.

4. Zergaitik gertatu zen bigarren gerrate mundiala?

Botere eta aberastasun gehienak gutxi batzuen esku zeuden.

5. Laborismoak ze proposatu zuen 1945 hauteskundeetan.

Langabezia eragotzi nahi zuten eta ongizate-estatu bat sortu. Horretarako pribatizatuta zeuden gauzak herritarren zerbitzurako jarri ziren, etxebizitza, garraiobideak, hezkuntza, osasun unibertzialak sortu ziren (denontzako) eta abar. Horretarako pribatuak ziren beharrezko baliabide asko publikoak egin ziren.

6. Laboristen proposamenen kontra Toriak (alderdi kontserbadoreak) zer esan zuten “Estatuaren interbentzionismoaren aurka”?

Toriak laboristen kontra zeudenez laboristek ekonomian “eskua sartzen bazuten” azkenean totalitarismoan bukatuko zuela herrialde osoak, adobidez nazien edo errusia estalinisten antzera. Laboristek hauteskundeak irabazi zituztenean hau ez zen gertatu.

7. Nola deitzen da alderdi laboristak ateratako idatzia? Eta ze helburu zituen?

“Alderdi Laboristaren Manifestua”. Aurreko krisiak hasitako indibidualismo eta botere ekonomikoen totalitarismoarekin amaitzea Estatu sozial komun bat eraikiz, lanpostuak

lortzeko monopolio pribatuak nazionalizatuz gizarte osoaren zerbitzura jarritz, gizarte guztirako zerbitzu publikoak sortuz.

8. Zer nazionalizatu zuten laboristek boterera heldu zirenean?

Ahal izan zituzten zerbitzu guztiak: elektrizitatea, gasa, osasuna, garraiobideak, meatzeak, ura eta abar..

9. 1946. urtean ze oinarrizko zerbitzu sortu zen?

Osasun Nazional Zerbitzua.

10. Alderdi laboristak sortutako eskubideen gainbehera noiz hasi zen? Nork bultzatua?

1979an Kontzerbadoreak Thatcherren eskutik boterera hauteskondeak irabazi eta gero. Bere politika liberalak norbanakoan eta gutxi batzuen etekinetan oinarritzen ziren, ondorioz, laboristak nazionalizatutako esparru guztiak pribatizatu zituzten. Ondorioz, lan kaleratze ugari pairatu ziren sektore guztietan interes pribatuaren izenean. Hurrengo urteetan etxebizitza publikoak saldu egin ziren, meatztegiak desagertu, komunikabideak pribatizatu ziren. 1989. urtean ura pribatizatu zen eta abar luze bat.